

HERNIA DISKALA

ZER DA?

Orno arteko diskoa, hitzak berak dioen bezala, bi ornoen artean aurkitzen da eta bere funtzioa hezur egitura hauen arteko talka zuzena saihestea da. Mugimendua erraztu eta babesa emateko.

Diskoaren barneko gune urtsua (nagusiki urez osatuta dagoena) kanpora desplazatzen denean eta inguruan daukan eraztun fibrosoa apurtzen duenean gertatzen da hernia diskala. Gehienetan, atzerako desplazamendua izaten da eta gune urtsuaren desplazamenduak bidean dauden egitura muskular zein nerbiosoak zapaldu edo kaltetu ditzake mota askotako sintomatologia eraginaz.

SINTOMAK

Aipatzekoa da, hernia diskala oso ohiko aztarna izaten dela sintomatologiarik ez duen pertsona baten erradiografian. Hernia diskalek kasuen %5 -10 artean sortzen dute sintomatologia, beraz, bizkarreko min askok ez dute bat egiten patologia honekin.

Hernia diskalak egitura nerbiosoak zapaltzen dituenean, sintomatologia ohikoenak min elektrikoa, lokartze sentazioa, gogortasuna zein ahultasuna izaten dira. Sintomatologia hauek goiko zein beheko gorputz adarretan sortzen dira. Hernia lunbarren kasuan, makurtzean zein altxatzean agertzen dira sintoma hauek, besteak beste.

Sintomatologiaren kokapena, hernia diskalaren kokapenaren arabera da. Hau da, hernia lunbarren kasuan sintomatologia gehiena beheko gorputz adarrean izaten da eta hernia zerbikalen kasuan berriz, goiko gorputz adarrean.

TRATAMENDUA

Hernia diskalen tratamendua nagusiki, tratamendu kontserbatzailea da, hau da, ariketa terapeutiko eta fisioterapia aktiboan oinarritutako tratamendua. Helburuak, gaitasun funtzionala mantendu, bizi kalitatea hobeto eta mina gutxitzea izaten dira.

Hala ere, zenbait medikamenturekin ere konbinatu daiteke minaren kontrola hobetzeko.

Kirurgia ez da gomendatzen hasiera batean, izan ere, hainbat ikerketek adierazi duten bezala, gorputza gai da zortzi eta hamabi hilabete artean hernia xurgatzeko.

Mota honetako sintomatologiarik badaukazu edo zure kasuarekin erlazionatzen baduzu irakurritakoa, zure konfiantzazko fisioterapeuta eta medikoarengana jo ezazu.

